

KALKULA EZAZU ZURE AZTARNA EKOLOGIKOA

Galdera bakoitzetik bat aukeratu eta gehitu lortzen dituzun puntuak. Zure ohiturak iraunkorrak diren ala ez ikusiko duzu

1.- Zure herrialdean ekoiztutako elikagai freskoak kontsumitzen al dituzu?

[2] Bai, ahal dudan guztietan.

[10] Ez zait axola produktu ontziratuak eta urruneko herrialdeetan ekoizitakoak erostea.

2.- Normalean animalietatik lortutako produktuak (haragia, arrautzak, esnea, etab.) kontsumitzen al dituzu?

[50] Ez, inoiz ez; barazkijalea naiz.

[130] Astean, inoiz haragia kontsumitzen dut, edo, bestela, barazkijalea naiz, eta arrautzak eta esnea ere hartzen ditut.

[150] Bai.

3.- Zein garraio-mota erabiltzen duzu ikastetxera joateko?

[3] Oinez edo bizikletaz joaten naiz beti.

[5] Garraio publikoa erabiltzen dut.

[70] Autoa hartzen dut.

4.- Oporretara zoazenean...

[85] Urtean gutxienez bidaia bat egiten dut hegazkinez.

[20] Noizean behin hegazkina hartzen dut.

[10] Ia inoiz ez dut hegazkinik hartzen.

5.- Zure etxean energia berriztagarria erabiltzen duen ekoizpen-sistematik ba al da?

[45] Ez, erabiltzen dugun energia sarekoa da.

[5] Bai, elektrizitateak jatorri berriztagarria du.

6.- Kontsumo txikiko bonbilak erabiltzen al dituzu?

[15] Ez

[5] Bai

7.- Behar ez direnean aparatu elektrikoak erabiltzen al dituzu?

[15] Batzuetan, piztuta uzten ditugu, inor ez egon arren.

[5] Ez, inoiz ez.

8.- Zure etxea beroak ez ihes egiteko prestatuta al dago?

[40] Ez, beroak ihes egiten du, leihoa itxia egon arren.

[15] Bai, kristalak bikoitzak dira eta itxita izaten ditugu.

9.- Berogailua behar baino gehiago erabiltzen al duzu?

[10] Bai, batzuetan bero gehiegi egiten du.

[5] Ez, nahiago dut ahal dudan guztietan berogailua aurreztu eta arropa gehiago janztea.

10.- Hondakinak murriztu edo berriz erabiltzeko neurriak hartzen al duzu?

[30] Ez.

[10] Bai, papera gordetzen dut beste aldetik erabiltzeko, eta beirazko ontziak berriz erabiltzen ditut.

11.- Gaikako bilketarako edukiontziak erabiltzen al dituzu?

[70] Ez.

[65] Bai, baina batzuetan bakarrik.

[55] Bai, plastikoa, metala, papera eta beira bereizten ditut.

[50] Bai, eta materia organikoa bereizten dut.

12.- Dutxatu ala bainatu egiten zara?

[15] Egunero bainatzen naiz.

[10] Astean behin edo bitan bainatzen naiz.

[5] Egunero dutxatzen naiz.

Amaierako puntuazioa:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	PUNTU GUZTIRA

EMAITZAK:

- **300 puntu baino gutxiago:** Ondo! Guztiok zuk bezala kontsumituz gero, ingurumena zaintzeko bide onean geundeke.
- **300-400 puntu bitartean:** Guztiok zuk bezainbeste kontsumituz gero, bi Lur beharko genituzke. Hala ere, zure aztarna ekologikoa Euskadik duenaren antzekoa da.
- **400 puntu baino gehiago:** Guztiok zuk bezainbeste kontsumituz gero, hiru Lur beharko genituzke. Zure aztarna ekologikoa Europako batez bestekoa baino handiagoa da.